

BIOLOGIA BEKA

Zientzia mailako azterlan- eta ikerketa-proiektu espezifikoean oinarriturik, eta elkarteko kideen partehartzea eta ikerlari-belaunaldi berrien prestaketa biziagotzeko asmoz, Aranzadi Zientzia Elkarteak egoki iritzi dio **Herpetologia** Behatokiaren baitan lanean aritzeko **Beka** deialdirako ondoko oinarriak finkatzeari:

DEIALDIRAKO OINARRIAK

1. Beka honen esleitze-prozedura bat etorriko da publizitate, egokitasun eta meritu printzipioarekin.
2. Euren prestaketa eta sustapen zientifikorako ikasketak gure elkartearen barruan egin nahi dituztenei Aranzadik ematen dizkien mota guztietako diru-kopuruak edota abantailak jotzen dira beka honen emaritzat.
3. Biologia edota Ingurumen Zientziak Titulua edota, horren ordez, dagokion egiaztagiria daukan orok bere burua aurkeztu ahal izango du gizabanako modura beka honetara, baldin-eta aipatu ikasketak azken 10 urteotan amaituak badituzte.
4. Deialditik kanpo geratuko dira Aranzadi Zientzia Elkarteak emandako beka bat baino gehiago jaso duten guztiak.
5. Beka onartzen denetik lanen iraupena hamabi (12) hilabetekoa izango da eta Herpetologia Behatokiko Zuzendaria den Alberto Gosá Jauna arituko da tutore gisa.
6. Bekaren zereginak, betiere anfibio eta narrastien ikerketa eta kontserbazioari lotuta, mendian zein bulego edo laborategian landuko dira. Azken horiek Herpetologia Behatokian burutuko dira, hau da Aranzadi Zientzia Elkarteak Donostian duen Egoitza nagusian.

7. Bekaren zenbatekoa 12.000 €-ko modulu batean finkatu da. Aranzadi Zientzia Elkarteak 1.000 euroko hamabi epetan egingo du horren ordainketa. Diru-iturrien eta beharren arabera beka 12 hilabete gehiagoraino luza liteke.
8. Eskabideak Elkarteko Idazkaritzan aurkeztu beharko dira 2009ko urtarrilaren 31a baino lehen, ondoko dokumentazioarekin batera:
 - Bekaren eskabidea. (Idazkaritza honetan dituzue inprimakiak)
 - Eskatzailearen Curriculum vitae.
 - Aranzadiko bazkide-ziurtagiria
 - N.A.N.aren fotokopia
 - Titulu akademikoen fotokopia
9. Bekaren esleipendunak ondoko betebeharrak izango ditu:
 - Bekaren onarpena gehienez hamar egunetan jakinaraztea.
 - Aranzadi Zientzia Elkarteko bazkide egitea.
 - Aurreikusitako planari jarraiki beka nola ari den garatzen Aranzadi Zientzia Elkarteari noiz-behinka azaltzea.
 - Jardueraren azkeneko memoria egitea.
10. Lanak Aranzadi Zientzia Elkartearen jabetzakoak izango dira eta lan horiek edozein euskarritan argitaratu eta zabaltzeko eskubidea izango du.
11. Dokumentazioa entregatzeko azken egunaz geroztik, Aranzadi Zientzia Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak beka esleituko du hogeita hamar egunen barru gehienera.
12. Herpetología Behatokiko Zuzendaria den Alberto Gosá Jaunak eta Xabier Rubio Jaunak osatuko dute Epaimahaia.
13. Eskatzailearen meritu akademiko eta zientifikoekin batera, haren egokitasuna eta gaitasuna ere baloratuko dira lan hau egiteko. Hautaketa egiteko garaian, beka

deialdi honen alorrean (anfibio eta narrastien ikerketa eta kontserbazioa) esperientzia izatea bereziki baloratuko da. Ingelesean maila ona izatea hobestuko da. Ez da baztertzen azterketa motz bat jartzea.

14. Zuzendaritza Batzordeak sor litezkeen gorabeherak konponduko ditu, eta dirulaguntza ondorioz gabe ere utz lezake, onuradunak bere betebeharrak beteko ez balitu.
15. Beka deialdia behin erabakita, gainontzeko hautagaiak, lortutako puntuaketaren arabera sailkaturik, beka-poltsa batean geratuko dira eta aurrerago sor litezken bekeetarako, betiere deialdi honen gaiari lotuta eta 2009-2010 denboraldien barnean, aukeratuak izan daitezke.
16. Deialdira bere burua aurkezten duen bazkide orok hemen azaltzen diren oinarri guztiak onartzen ditu.